

# EDITORIAL

## Aseguru segurua

**E**Z daiteke esan mendizalea, izatez, arriskua bastertzen duen pertsona denik, osasunaren ekonomilariek definitzen duten bezala. Abentura nahia gure zaletasunaren muina da eta arrisku fisikoaren osagarria beti daukagu aurrean oporretako eta asteburuetako gure ekintzetan.

Eta hori nabarmena da sailtasunezko alpinismoa edozein motatan praktikatzen duten jendearengan (himalayismoa, escalada, goi mendi negutiarra, trabesiako eskia, hegaldi autoinkontrolatuak, etab.), eta istripuen estadistikek hala baiezatzen dute beste kirol ekintzekiko lauki konparativoetan. Baino ibilaldi eta txangoen praktika arruntak ere (bai, bai, badakit ariketa fisiko erregularak bizi ohitura osasuntsuagoa dela telekusle adiktoarena, poteatazile setatiarena, edo futbol intxa sentiberarenaren baino eta 2.000garren urtean denok guztiz osasuntsu izango garela) osasunaren arriskurako aukeratan jartzen gaitu. Eguraldi txar uneak, behelainotan galtzeak, gaua etortzeak, eltxo eta abarren usikadak, erortze eta oztopaldiak, zaurietako infekzioak, baserrietak txakurren haginkadak eta baita ere errepidezko bidaia luze maizegiak.

Arrisku maila bat onartzen dugu baina bere ondorioak aurrikusten ditugu, oinarriz Federazioko kirol baimena sinatuz, horrek bide batez, Pyrenaica dohañik jasotzeko abantaila harrigarria eskaintzen digularik.

Kirol baimena jasotzeak, mendian aritzean gerta dakiziguken istripuak estaltzen dituen asegurua kontratatzea dakar. Eta hona heldu nahi genuen. Aurtzen ohizko procedura aldatu egin dela gertatu zaigu. Nafarroa eta Gipuzkoako klubek konpinia pribatu batekin, Zurichekin, poliza sinatzea erabaki dute, Arabakoek eta Bizkaikoek, aldiz, askatasuna eman diente bere bazkideei eskaintza hori aukeratzeko edo «Mutualidad General Deportiva»ren estalpen klasikoaz jarraitzen.

Estaltzen diren arriskuak eta ordaintzeko primak desberdinak dira bi kasuetan. Eta noski, desberdina izango da funtzionamendu era eta, azken batez, istripuen aurreko erantzuna. ¿Zein da soluziorik onena kasu bakoitzean, adibidez, atzerriko istripu kasu larri batean? Baino lasai. Denborak eta esperientziak argituko digu hori eta. Soluzioa hurrengo alean.

## Un seguro seguro

**E**l montañero, en principio, no es una persona de las que se puede decir que siente una gran aversión al riesgo, tal como lo definen los economistas de la salud. El deseo de aventura está implícito en nuestra afición y el componente de peligro físico está siempre presente en nuestra actividad de fines de semana y de vacaciones.

Ello es evidente en la gente que practica alpinismo de dificultad, en cualquiera de sus facetas (himalayismo, escalada, alta montaña invernal, esquí de travesía, vuelos autocontrolados, etc.) y las estadísticas de accidentes lo corroboran en los cuadros comparativos con otras actividades deportivas. Pero incluso la práctica habitual del excursionismo (sí, sí, ya sé que el ejercicio físico regular supone unos hábitos de vida mucho más saludables que los del adicto televidente, el contumaz poteador o el sensible hincha futbolístico y que estaremos sanísimos todos en el año 2000), nos coloca en ocasiones de riesgo para la salud: momentos de mal tiempo, extravíos en la niebla, llegada de la noche, picaduras de bichos, caídas y tropezones, infecciones de heridas, mordeduras de perros de caserío e incluso la repetición frecuente de largos viajes por carretera.

Asumimos una cierta dosis de riesgo pero prevenimos sus consecuencias, básicamente con la suscripción de la licencia deportiva de la Federación, lo cual, dicho además de paso, ofrece la increíble ventaja de recibir gratis Pyrenaica.

La adquisición de la licencia deportiva supone la contratación de un seguro que cubre los accidentes que puedan ocurrir en la práctica del montañismo. Y ahí queríamos llegar. Resulta que este año ha cambiado el procedimiento habitual. Los clubs de Gipuzkoa y Nafarroa han decidido suscribir una póliza con una compañía privada, Zúrich, mientras que los de Araba y Bizkaia han dejado libertad a sus socios para que opten por esta oferta o para que sigan con la cobertura clásica de la Mutualidad General Deportiva.

Los riesgos cubiertos y las primas a pagar son distintos en los dos casos. Y evidentemente, será diferente la forma de funcionamiento y, en definitiva, la respuesta ante los siniestros. ¿Cuál es la solución mejor en cada caso, por ejemplo, en un accidente grave en el extranjero? Calma al obrero. El tiempo y la experiencia nos lo dirán. La solución en el próximo número.